

Laura Mintegi Lakarra

Ezin jakiteari utzi

Noizbait entzun nion Angela Davisi esaten ez zuela batere meriturik. Ez zekien besterik egiten, hori zen guztia. Haren militantzia txalotzen zuen solaskideak, haren kemena, kuraia, konpromisoa. Davisek ez zion garrantzirik ematen. Hori baino ez zekien egiten. Gaztetako gertaera historikoek kolpatu zuten eta ez zuen beste biderik ikusi errepresioari erantzutea baino. Bizitza osoan.

Euskaldunek ere eskarmentu handia izan dute errepresioari aurre egiten, eta belaunaldi bakoitzak bere modura erantzun dio jazarpenari.

1936 baino lehenago jaiotako gazte euskaldunek egun batetik bestera bizitzari buelta eman behar izan zioten, galtzerdi bati nola. Bete-bete harrapatu zituen errepresioak, eta kartzela zein erbestea pairatu zituzten. Edo erailak izan ziren. Belaunaldiko batzuek, baina, errepresioari branka ematen jakin zuten, eta gerrak utzitako basamortuan kimuak ereiten saiatu ziren.

Horien artean ditugu Nikolas Ormaetxea *Orix*e (1888-1961), Manuel Irujo (1891-1981), Jose Ariztimuño *Aitzol* (1896-1936), Estepan Urkiaga *Lauaxeta* (1905-1937), Elbira Zipitria (1906-1982), Andima Ibina-gabeitia (1906-1967), Jokin Zaitegi (1906-1979), Polixene Trabudua (1912-2004), Jose Estornes Lasa (1913-1987) eta Imanol Berriatua (1914-1981), besteak beste.

Oraindik haur zirela harrapatu zuen kolpe militarrek hurrengo belaunaldia. Sehaskatik ezagutu zuten itomen frankista, eta, jazarpenak jazarpen, tinko jardun zuten, entzungor eginez euskarak zuen heriotza-agiriari. Horien artean daude Luis Villasante (1920-2000), Martin Ugalde (1921-2004), Xabier Gereño (1924-2011), Anton Aurre (1927-2013) eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i (1929-2012), izen batzuk aipatzearren.

Hurrengo belaunaldikoek, gizarte-kontzientzia hartu orduko, bazekiten zenbaterainokoa zen etsaiaren indarra, eta, hala ere, aurre egin zioten debekuari. Gutxi-gutxinaka itzaltzen ari den belaunaldi horrek euskal kulturgintzaren hezurdura sortzen lagundu zuen, ondorengoentzat ezinbestekoak diren proiektuak abiatuta: ikastolak, euskaltegiak, aldizkariak eta argitaletxeak, literatura, hizte gigintza, entziklopediak, euskalgintza, komunikabideak eta euskarazko hezkuntza unibertsitarioa. Gotzon Garate (1934-2008), Julen Kaltzada (1935-2017), Joseba Intxausti (1936-2023), Joxe Azurmendi (1941-2025), Joseba Goñi (1941-2007), Joan Mari Torrealdei (1942-2020), Anton Artiñano (1945-2000), Joseba Jaka (1948-1996), Joxemi Zumalabe (1950-1993) eta Andolin Eguzkitza (1953-2004) ezinbesteko erreferentziak dira gaur egungo egoera ulertzeko.

Ondoren jaio diren euskaltzaleek, XX. mendearen bigarren erdian jaioetakoek, alegia, sendotze eta trinkotze lana egin dute, eta ez da beti erraza izan, bi estatuek ez dutelako inolako erraztasunik eman. Hala ere, eta ahaztu gabe lurralde guztietan ez dela garapen bera izan, hezkuntza sistema 0 urtetik unibertsitaterraino euskaratu dute, sistema literarioa sortu dute, kulturgintzaren industria eraiki dute, legeak sortu dituzte eta hizkuntzagintza profesionalizatu dute. Itxura batean, euskararen egoera egonkortu dute.

Galdera da ea nahikoa den euskara instituzionalizatzea. Eta erantzuna baldin bada oraindik ere militanteak behar direla, zein gertakizunek bihurtuko dituen militante 2000ren ondoren jaioetakoak.

Alain Badiouk esaten du gertakizunak (*l'événement*) kontzientzia sorrazten duela eta hausturarako abiapuntua dela. Une batean gertakizun batek gizakia interpelutzen du eta erabaki beharra dauka: indibiduo izan ala subjektu bihurtu. Aurretik aipatu diren gizon-emakumeak subjektu bihurtu ziren unerren batean, gertakizunak kolpatuta. Interpelazioari emandako erantzunak bihurtu zituen militante. Angela Davisen dioen moduan, bizitza osoan ekinean jardutea da egin zezaketen gauza bakarra, behin kontzientzia hartuta ezin baitzaio jakiteari utzi.